

ERREPORTAJEA ELI IBARRA ETA ITZIAR GURRUTXAGA ATHLETIC-EKO JOKALARIAK  
GEHIGARRIA JASONE OSORORI ELKARRIZKETA · KULTURA AINARA GARCIA SARITUA

# BARRREN

ASTEKARIA



ATHLETIC DE BILBAO



ITZIAR GURRUTXAGA ETA ELI IBARRA

## Superligako txapeldun Athletic-ekin

"IRABAZI DUENA ARMONIN, GALDU DUENA AGONIN" (esaera zaharra)

EL GOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko maiatzaren 16a/XI. urteq/445. zkia

2003 - 2004 IKASTURTEA



Makina  
Erremintaren  
Institutua  
Instituto de  
Maquina  
Herramienta

**INFORMAZIOA:**

**Makina Erremintaren  
Institutua**

**Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar**  
**Telf. 943 74 82 65 - 74 41 32**  
**Faxa. 943 74 41 53**  
**email: amaiaifmh.es**  
**[www.imh.es](http://www.imh.es)**

AENOR



**egun enpresak langile tekniko kualifikatuen  
beharren aurkitzen dira**



**ATE IREKIAK :**

**maiatzaren 22an eta ekainaren 5ean,  
arratsaldeko 19etan**

**Izena emateko epea: ekainaren 2tik Ilra, biak barne**

**Hau aldatzera goaz!**

**denok batera,  
gipuzkoa aurrera!**

**OSMOINNOIlttith**

# 40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



17

## Bertso Eskola

1981ean jarri zuen martxan Bertso Eskola Elgoibarko Izarrak. Arrasateko eta Zumaiaiko bertso eskolek inbidia eman eta Elgoibarren ere antzerako zerbeit egin behar zela erabaki zuten sasoi hartan Elkartearen bueltan zebiltzan bertso zaleek.

Eta hasi hamabi ikaslerekin hasi ziren. Ikastolako ikasleak izan ziren estreinako ikasleak, hamabi urte ingurukoak. Eta irakasle lanetan jardun zuena, berriz, Anjel Ugarteburu izan zen. Hamar urte eman zituen Anjelek txikiaren artean bertso zaletasuna pizteko ahaleginean. Berak esan digunez "Bertsozaletasuna lortu genduala uste dot, bertsolariarik atera ez bagendun ere. Baina astean ordubeteko jardunarekin ezin gendun askoz gehiago lortu. Bertso Eskola euskara lantzeko eta aberasteko bidia izan zan".

Eta hasi 12 lagun hasi baziren ere, bi-hiru urtera 30 lagun ere izan zituzten Bertso Eskolan. Ikasle askotxo irakasle bakarrarentzat. Ondorioz, Xabier Arriolak eta Daniel Legorburuk ere jardun zuten zekitena erakusten.

Ikasleek izaten al zuten ikasitakoa inon erakusteko aukerarik? Anjelek esan digunez, Eskolarteko Txapelketak, Trinitate Jailetako aktuazioa eta Etxegiña Bertso Paper lehiaketa izaten ziren, besteak beste, bertso abildadeak erakusteko aukerak.

1992aren bueltan amaitu zen Bertso Eskolaren lehen etapa. Elkarreak ere dinamika berri bati ekin zion eta Bertso Eskola German Meabe bertsolariaren arduran geratu zen. Bigarren etapa honek beste bospasei urte iraun zuen. Ordutik, zoritxarrez, Elkartea bertso eskolarik gabe dago. Bertsozaleak bai baina bertso mundua ikasteko eta lantzeko aukerarik gabe.

*Anjel Ugarteburu eta Imanol Larraliaga*

# iritzia



## Egunkaria aurrera benetan esateko ordua!

Mundua gelditu egin da, badirudi Lurrak bueltarik ematen ez duela. Komunikabideetako orrialdeak eta minutuak ia-ia monografikoak dira, hauteskundeak gora hauteskundeak behera. Ez diot gaiari garrantzirik kendu nahi, oso inportantea baita gure herria nork gobernatuko duen erabakitzea, eta oso "inpotentea" da milaka herritarrek euren aukeraz ezin baliatzea (Errenta aitortpen garaian gaude, eta zergak ordaintzea derrigorrezko badute ere, bozkatzeko eskubidea ukatzen zaie). Baina nik beste gai bati heldu nahi nioke oraingoan: Egunkari berria. Badator, bai, San Joanetarako izango omen dugu eskuartean, baina horretarako denon laguntza beharko da. Geroko negarrak eta protestaldiak alferrikakoak izango dira bestela.

Kazeta berriko langileek kalkulagailua hartu eta batuketak eta kenketak egin dituzte: 5 milioi euro beharko dira periodiko berria kioskoetan izateko. "Ez da zaila!", esan dit lagun oso baikor batek: "Donostiako manifan zenbat lagun bildu gintunan, e? 100.000 bai, eta hori gutxi jota. Ba bakoitzak 50 euro jarriko balitu, listo!" Bera bai listoa. Bost milioi eurora iristeko kalkulagailuak dio Elgoibarko herritik milioi PEZETA gutxi batzuk atera beharka lirakekeela. Eta hori aza]du diodanean hasi da gure laguna zalantzaka. Oraingoan ni izan naiz baikorra: lortuko dugu, ikusiko duzu. Hilaren 24ko festan jende askok hartuko du parte, eta 50eko eta batez ere 300 euroko akzioak eskuratuko dituzte, bai horixe. Ezagutzen dut San Inazioetako zubi-egunetarako plana bertan behera utzi eta dirua akzioak erosteko erabiliko duenik. Bera ez da elgoibartarra, baina bai gertukoa.

Montse Arregi

Kexak .....	5
MOTZ MotZ .....	8
gehigarria .....	13
kiROIak .....	21
aGenda .....	24

## Urruzunoren begi ezkutua Laboaren hitzak



Mikel Laboaren kanta batean langile batek hainbat galdera erretoriko egiten ditu. Historia liburu bat ireki eta hamaika orri. Atzekoz aurrera eta aurretik atzera, hizkiak, orriak eta orriak. Gertakari handi eta txikiak, guztiak ortotipografia berean emanak, letra larri eta xeheak ia bereizi gabe. Lege Zaharretik Aro Garaikidera, Iraultza Liberalera, Monarkiatik Demokraziara, Gerra Zibila agurtu eta Diktadura frankistara. Trantsizio politikoa... amaierarik gabeko autobidea. XXII. mendea, saihezbidea?. AEBek gorago jarri dute izarra. Marea Beltzak Itoizko sarraskia estali du. Euskal komunikabideetan ikus-entzule kopurua goraka. Zuberoa herri galdua, edalontzi huts baten inguruan dantzan. Langile hark galdetu zuen. Erantzunik gabeko galderak eta laster historia liburu berria argitaratuko dugu. Datozen belaunaldiek euren ikasketa programetan ikasiko dituzte gertakariok, eta laster arkaismotzat joko. Euskal Herria ez zen atzo jai. Laboaren hitzek egungoa aurreikusten zuten.

Ainhua Lendinez

### 4 URTEKO AGINTEALDIA

1-Legez kanpoko kontratazioak, zentzugabeko eraikuntzak, alde guztietatik hainbat eraikin, duda-mudako negozioak, faltsukeriak eta harrokeriaz beteriko jokaerak izan dira aurreko legislaturaren ondorioetariko batzuk.

2-Ez da erraza azkeneko 4 urteetatik zerbait onik ateratzea, ez da begikoa herri honetako alkatearen jarrera zein den jakitea, bere kezka bakarra bere karrera politikoa da, zergadunen kontura handilu eta Madriletik datorkionari men egitea.

3-Aparkalekuen falta, herritik urrun dauden auzoen eraikuntzak, etxebizitzaren izugarritzko salneurriak, gardentasun eza, hizkuntza politiko baten gabezia eta hain agerikoa den entxufismo municipalak izan dira legislatura honek bere gain harturiko zamaranak.

4-Udaletxe garden baten alde borrokatzen, herri honetako beharrei aurre egingo dien etxebizitza egokiak eskatuz, gure hizkuntzaren berezko erabilera sustatzeko duen hizkuntza politika bultzatu, beharizan gehien dutenen aldeko laguntzak lortu, auzoak herriko bizitzarekin lotu, kontratazio argia eta garbia, Udala, Euskal Herria eraikitzeko eragile zuzena izatea, horiek denak bultzatu ditugu azken lau urteotan,

Asier Zengotita Alberdi  
N.A.N. 72.575.538

## BA RRE

### Ba

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

Tf: 943 74 41 12

Publizitatea:  
xr 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

[barren@topaquea.com](mailto:barren@topaquea.com)

Helbide informatikoa:

[www.topaquea.com/barren](http://www.topaquea.com/barren)

ARGITARATZAILEA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDPIATZAILEA Ainhua Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PuaLtaurex Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione UnallUEI GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILERAK Jasone OSOfo, Ainhua Lodoso, Neslor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. ela Urruzuno L.T., AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garaleren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIZARIO IZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



3111<sup>1</sup> kutxa  
osker


-DANOBAT  
IALARINAS X EP. RMAIENTE

5.4 GOIT1  
GRUPO DANOBAT

EATARTA

## (0) > LELCZ

Urasandiko bizilagun batek azaldu digunez, eskailera mekanikoen inguruan arratoi asko dabilta azkenaldian: "Azken bi hilabeteetan etxeko leihoak zabaltzeko beldurrez gabiltza. Arratoi asko dago eskailera mekanikoen inguruan, oso handiak dira, eta zerbait egin beharra dago".



## 17.110111

Futbolzale batek C.D Elgoibar taldearen partiduetan baloiak jasotzen ibiltzen diren mutikoak txalotu nahi ditu: "Haundi galtzen joan arren, mutiko hauek euren lana oso fin betetzen dute, joko garbiaren

Herritar batek azaldu digunez, Santa Klara auzoan kotxeak oso azkar ibiltzen dira: "Kotxeak oso azkar ibiltzen dira ingurune honetan, eta oso arriskutsua da bertako bizilagunontzat. Badenak jarri, edo autoak poliki joateko beste irtenbideren bat aurkitu behar dela uste dut".

Guraso talde batek, Pilar Ikastetxean Gurasoen eguna antolatu zutenak txalotu nahi ditu: "Joan zen larunbatean, maiatzak 10, Gurasoen Eguna ospatu zen Pilar Ikastetxean eta dena oso ondo atera zen. Antolatzaileek oso lan ona egin zuten, eta horrela jarrai dezatela datorren urtean ere".



# Elisabet Superligako



*Lehoiak esan ohi zaie Athletic taldeko jokalariei, aste honetan protagonista ditugun bi neska elgoibartarrei lehoi emeak deitu ote beharko diegu hiruko erregela erabiliz? "Garra" badute behintzat, ez lehoiek hankazpian izaten dutena, futboleko hainbestetan aipatzen den grina edo gogoia izendatzeko erabiltzen dena baizik. Aurten sortu den Athletic Clubeko emakumezkoen taldeko partaide dira Elisabeth Ibarra eta Itziar Gurrutxaga eta oihartzun mediatiko handia lortu duen Superligako txapeldun izatea lortu dute. Titulua eskuratu zuten partiduan 35.000 ikusleren aurrean jokatu zuten San Mamesen, marka guztiak hautsiz. Orain Realak liga irabaztea bakarrik falta da Euskal futbolaren nagusitasuna agerian jartzeko.*

## Emakumezkoen Superliga irabaztea espero al zenuten?

**Eli:** Lehenengo 3 edo 4 taldien artian ibiliko ginala uste gendun, baina partiduak pasa ahala aurrian egoteko ekipua zakagula ikusi gendun. Azkenian sorpresa izan da, baina merezitza irabazi dogu.

## Zein izan daiteke denboraldi borobil honen selcretua?

**Itziar:** Entrenatzailea garrantzitsua izan da. Oso exijentia da, baina hala bihar dau. Ohian gaixorik egon ezian entrenamenduetara jun biharra dao. Batzutan nekau eitxen zera, baina hor daude emaitzak.

## Zein talde izan dira areriorik gogorrenak?

**I.:** Levante, Puebla, Sabadell, Spaynol... 12 talde daude Superligan, baina alde handiak daoz batetik bestera. Bi edo hiru ekipo oso onak dia, beste 3 edo 4 maila onekuak eta bestiak maila bajuaua dake. Iaz liga sortu zanian dirua zaken taldiek sartu zialako gertatu da hau.

**E.:** Maila oso oneko taldiek, Eibartarrak adibidez, kanpua geratu zian dirurik ez zakelako, nahiz eta Superligako askok baino talde hobia euki.

## Ez zarete Athleticera joan izanaz damutuko, ezta?

**I.:** Erabakia argi zakagun eta gustora etorri ginan Athleticera, bixok ere Athletic zaliak gera-eta. Hala ere, pena piska

bat eman zigun Eibartarrak ateratziak. Lehen gutxi ginan eta 2 edo 3 atera ginanian ixa jende gabe geratu zian.

## Zer sentitzen da 35.000 pertsonen aurrean futboleko jokatzeko?

**E.:** Oso polita izan zan, festa bat. Ez gendun horrelakorik espero.

**I.:** Berotzera atera ginanian, tribuna aldera juten zan nahigabe begiratu eta piskat desentrau eitxen zera, baina gero ez da gehixegi igartzen.

**"Athletic-en ez dogu kobratzen baina lehen taldian pare gaiz: bidaiak hegazkinez, 3 edo 4 izarretako hotelak ..."**

*Eli Ibarra*

## Eta San Mamesen jokatzeko?

**I.:** Gure ametsa San Mamesen partidu bat jokatzia zala komentatzen gendun. Lagunarteko partidu bat zikiera utziko zigutela komentatzen gendun erdi brometan. Azkenian ligako partidu bat jokatu gendun eta lehen ekipuak bere partiduan ordua aldatu zaban guregaitxik.

## Zenbat jende joaten da bataz beste zuen partiduak ikustera?

**E.:** Lezaman jokatzeko ditxugu partiduak eta 2.000 pertsona inguru juten dia. Ez dia gutxi.

# Ibarra eta Itziar Gurrutxaga supertxapeldunak



## Denboraldiko zein unerekin geratzen zarete?

E.: Pueblaren aurkako partiduakin. Azken partiduan baino jende gitxio jun zan San Mamesera, 20.000 pertsona inguru, baina ez gendun inola ere espero.

I.: Neretzat ere unerik onena izan zan. Puebla zan gure areriorik nagusixena eta irabaztia lortu gendun.

## Modan al dago emakumeen futbola?

Baietz uste dot. Nahiz eta Athletic-eko jokalaria izateak eragin handixa daukala uste dodan horrenbeste jende mobitzerako orduan.

E.: Bai, komunikabideen aldetik ere oihartzun zabala eman digute. Ez gaude ohitxuta, baina prentsaurrekoak, elkarriketak, telebista... ibili bihar izan gera.

## Gabarra atera edo ez eztabaida sortu da. Zer iritzi duzue?

I.: Gehixegi dala iruditzen jata. Ligia irabazi dogu, baina gure lehenengo urtia da. Beste modu batera ospatu leikela uste dot. Gabarra ez da egunero ateratzeko gauzia. Ezin da Superliga irabazi dogulako gabarra atera eta gero kopa irabazi dogulako berriz atera.

E.: Kopa Txapelketa bukatu ondoren, ailegauko da ospakizunetarako garaixa. Ekainaren 29an bukatuko da kopa finalera ailegatzia lortzen badogu.

## Ibarretxek Athleticen lorpenik handiena izan zela esan zuen?

Bai, harrera ofiziala ein zigun eta hala esan zaban, baina Iribar zixen gurekin eta ez zitzaion gehixegi gustau. Hara ez da mundu guztixa juten eta Alaves eta gu izan gexala hartu ditxuen talde irabazle bakarrik aipatu zaban lehendakarixak.

## "Gabarra ez da egunero ateratzeko. Ezin da superliga irabazi dogulako atera eta gero kopa irabaztean berriz atera"

*Itziar Gurrutxaga*

## Ez duzue soldatarik kobratzen, ezta?

E.: Ez, Athleticen ez dogu kobratzen, baina gainontzekuan lehen taldian eta Bilbao Athleticen pare gaiz: Hegazkinez egiten ditxugu bidaia luziak, 3 edo 4 izarretako hoteletara eramaten gaitxuzte eta inork ez daukan talde teknikua daukagu guretzako lanian: entrenatzaileak, prestatzaile fisikuak, medikuak...

## Zer egin behar da emakumezkoen futbola bizi mantentzeko?

I.: Dirua da garrantzitsuena eta beharrezkoena. Hemen inguruan badago talde gehiago ateratzeko adina jende, eta

goixan ibiltzeko gai dianak. Reala, Osasuna... dia diru gehixen dakenak eta beraz taldiak ateratzeko aukera gehixen dakenak.

E.: Talde gehixo ateraz gero ligaren kompetentzia eta maila igotzen dia. Komunikabideek emakumezkoen futbolian jartzen ari dian arretak jarraitzia ere garrantzitsu da.

## Talde profesional batek eskaintza eginez gero fitxatzeko prest egongo al zinatekete?

E.: Pentsatzekua izango litzateke, baina zaila da etxetik kanpora jutia.

I.: Nik euki naban kanpora juteko modua baina Athleticen jokatzeko aukeria sortu eta nahixao izan naban Superligan jokatzia. Futbolian jokatzearren dirua kobratzia ondo dao, baina etxetik kanpo egotia gogorra da. Gainera, dirua ere soldata normal bat modukoa da, 200.000-300.000 pezeta, eguneroko bizimodua aurrera ateratzeko bakarrik. Oin hemengua ikusitxa zaila da izango da kanpora jutia.

## Europako Txapelketa izango al da hurrengo urterako erronka?

I.: Abuztuan hasiko ditxugu entrenamenduak ziurrenik, Txapeldunen Liga irailan hasiko baitxa.

E.: Ilusio handixa dakagu Txapeldunen Liga jokatzeko eta taldekideekin bidaiatzea ere polita izango da.

## Debabarreanean langile industrial gehien dituen herria da Elgoibar

132 enpresatan banatuta, 3.439 pertsona ari dira industria munduan lanean

**D**ebegeak kaleratutako azken datuen arabera, Elgoibar da Debabarreneko eskualdean langile industrial gehien dituen herria. 132 enpresatan banatuta, 3.439 pertsonak egiten dute lan industria alorrean, hau da, populazio osoaren (10.658) %32,26a. Bigarren postuan Eibar dago, 3.085 langilerekin, eta hirugarrenkoa Ermua da, 1.689 langilerekin.

### Makina Erreminta indartsuena

Debabarreko sare industrialak indartu egin zen 2002. urtean. Guztira, 12.648 lanpostu industrial zenbatu ziren, eskualdeko 579 enpresatan banatuta. Azterketa honen arabera, makina erremintaren alorra da aurten ere indartsuena. Guztira, eskualdeko 1.816 langilek egiten dute sektore honetan lan, 31 enpresatan banatuta. Automozioaren sektoreak 1.816 langile biltzen ditu 13 enpresatan.

Herrialde bakoitzak espezialitate bat dauka. Honela, Elgoibarren erreminta

HERRIA	Biztanleak	Enpresa kopurua	Langile industrialak	Langileak biztanleko
Elgoibar	10.658	132	3.439	%32,26
Eibar	28.496	199	3.085	%10,82
Mallabia	1.120	65	1.430	%127,67
Deba-Itziar	5.276	61	1.603	%30,38
Ermua	16.869	47	1.689	%10,01
Soraluze	4.150	38	653	%15,73
Mutriku	4.765	22	349	%7,32
Mendaro	1.516	15	400	%26,38
<b>DEBABARRENA GUZTIRA</b>	<b>172.850</b>	<b>574</b>	<b>12.648</b>	<b>7,3%</b>

makina da nagusi, guztira, 1.239 langilek egiten dute lan sektore honetan. Ermua, Deba eta Mendaron automozioa da nagusi, Soraluzen tornilogintza eta Mutriku arrain kontserba enpresak.

Aurreko urteko datuekin konparatuz, 2002. urtean lanpostu industrialetan

beherakada txiki bat izan da. Hala ere, sektore industrialarentzat urte amaiera oso gogorra izan zela kontuan harturik, Debegeako arduradunek positibotzat jo dituzte aurtengo emaitzak, hauen hitzetan, "Debabarreko eskualdean lanpostu industrialak indartzen ari dira".

## Elgoibartarren bizi-kalitate hobearen aldeko apustua egin du Maribi Agirregomezkorta, EAJ-EA koalizioko zerrendaburuak

**J**oan zen astelehenean, hilaren 12an, **EAJ-EA** koalizioaren aurkezpena izan zen Kultur Etxean. Bertan, Maribi Agirregomezkorta koalizioko zerrendaburuak gain, Juan Mari Juaristi eta Iñaki Galdos Gipuzkoako EAJ eta EAko ordezkariak izan ziren. Bi hauek hartu zuten hitza lehenengo, eta Euskal Herriko egungo egoera politikoaz mintzatu ostean, maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeek etorkizunean izango duten garrantzia azpimarratu zuten.

Maribi Agirregomezkortak, bestalde, bere programako puntu garrantzitsuenak azaldu zituen. Aurreko legegandian hasitakoaren bidetik jarraituz, EAJ-EAren helburu nagusia elgoibartarren bizi kalitatea hobetzea izango zela adierazi

zuen. Honekin batera, orain arte lortutako gauzen zerrenda egin zuen, besteak beste, Mintxetako aire libreko igerilekuak, Albitxuriko Industriegunea eta Urasandiko eskailera mekanikoak aipatu zituen.

Etorkizunari begira, gaztediari eta nagusiei zuzendutako ekintza sozialak aipatu zituen Maribi Agirregomezkortak. Alor honetan, nagusi eta behartsuekiko etxez-etxeko laguntza eta gaztedia ordezkatzeko duen kargua martxan jartzeko asmoa azaldu zuen.

Hirigintzari dagokionean, babes ofizialeko 220 etxebizitzaren eraikuntza, Meliton, Madala eta Olasoko errotondak egitea, Urasandiko eskailera mekanikoaren bigarren fasea eta herriko lorategi eta parkeak apaintzea azpimarratu zituen.



Juan Mari Juaristi, Maribi Agirregomezkorta eta Maki Galdos.



## Egunkariaren aldeko eguna ospatuko da maiatzaren 24an Elgoibarren

Goizeko 11:00etan hasita, talo jana, meentzako tailerrak, Egunkari berriaren akzioak eta kamisetak erosteko aukera izango da Plaza Handian. Eguerdiko 14:30ak aldera, bazkari herrikoa egingo da Madalako Parkean. Interesatuak Lanbroa tabernan edo Elgoibarko Izarran eros ditzakete bazkarirako txartelak, ikasle eta langabetuek 10 eurotan, eta langileek 15 eurotan. Bazkal ostean, bertsolariak eta erromeria izango dira. Antolatzaileek azaldu digutenez, iluntzerako kontzerturen bat antolatzen saiatuko dira, baina oraindik ezin dugu aurreratu zein talde izango den.



*Egunkari berriaren akzioak eta kamisetak erosteko aukera izango da.*

## AuB eta Herri Plataformen ilegalizazioaren aurkako kontzentrazioa egin zen Plaza Handian



Joan zen maiatzaren 9an, 11:00etatik 12:00etan kontzentrazioa izan zen Plaza 13:00etara lanuztea deituta zegoen, AuB eta Handian, eta jende ugari bildu zen Auzitegi hainbat herritan osatu diren Herri Gorenak hartutako erabakia salatzeke, Plataformen ilegalizazioaren aurka. Einbiou Plataformari debekatu egin diote Elgoibarren erantzun zabala izan zuen maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetan deialdiak, eta herriko establezimendu parte hartzea. Baina beraiek azaldu gahienak itxi zituzten bi ordu horietan. digutenez, aurkeztu egingo dira.

## Merkatu Plazako dendariak 60 euroko 4 sari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Jon Elkorobarrutia, Lolita Astigarraga, Ana Suinaga eta Maribi Oñederra izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi afari zozketatuko dira.



## Gipuzkoako herririk euritsuena izan da Elgoibar maiatza hasieran


Bero handiko egun batzuen ostean, joan zen maiatzaren 4an eguraldiak txarrera egin zuen. Eurria egiten hasi zen, eta Donostiako Igeldo mendian dagoen obserbatorioan jasotako datuen arabera, 109 litro ur jaso ziren lau egunetan. Apirilean 49 litro ur besterik ez ziren jaso, beraz, maiatzeko lehen egunetan apirileko hilabetean jasotako euriaren bikoitza bildu zuten. Honekin batera, Elgoibar izan omen zen Gipuzkoan euri gehien egin zuen herria. Guztira 154 litro ur jaso ziren lau egunetan. Asteartean, maiatzaren 5ean, izan zen euri gehien egin zuen eguna, eta 76 litro jaso ziren. Margarita Martin Gimenez, Euskal Herriko Zentro Metereologikoko arduradunak azaldu zuenez, maiatzaren 4an, ordu erdian 31 gradu izatetik 16ra jaitsi zen tenperatura, eta hori izan zen hainbeste euri egitearen arrazoia.

## Ondasun Higiezinaren eta Hirilur Izaeraren gaineko zergak ordaintzeko epea uztailaren 1 ean amaituko da

2003. urteari dagozkien Ondasun higiezinaren gaineko zerga eta hirilur izaerako eroldari dagozkien erreziboak 2003. urteko maiatzaren 15etik uztailaren lera bitartean ordaindu daitezke Udaletzeko Dirubilketa bulegoan edo edozein entitate laguntzailean. Aipaturiko epea pasa ondoren prozedura exekutiboa hasiko da, eta dagokion errekarua, kostuak eta berandutze korrituak kobratuko dira. Ordainketa errazteko, ordainagiriak helbideratzea gomendatzen da.

## Elgoibarko industrietatik makina erremintaren sektorea da indartsuena

# BA AL DAKIZU MAKINA ERREMINTAREN SEKTOREAN ZER EGITEN DEN?



**BITTOR URAIN**  
40 urte, kimikoa

Gutxi, baina zerbait bai. Fresadorak, tornuak, transferrak... tailerrian makinak eitzen dia, mekanizaua... ez nabil sektore horretan lanian, baina apur bat zer dan badakit.

**ARANTZA SAN MARTIN**  
43 urte, etxeoandrea

Oso ondo ez dakitx. Semiak mundu horretan sartzeko asmua daka, eta modulua ikasten hasten danian enterauko naiz hobeto zer dan. Senarra ere sukaldaria da, eta ez jata tokau erreminta makina gertutik ezautzia.



**INMACULADA AZKUE**  
45 urte, okina

Ez, nere familia guztia okina izan da, eta sektore hori ez dot asko ezagutzen. Torniloak, metala, burdina... horrekin lotzen dot, baina ez dakit zehazki zer dan.

**JUAN MANUEL MORALES**  
28 urte, peoi espezialista

Ez, denbora gutxi daramat Elgoibarren. Asko entzuten da, baina konkretuki ez dakit. Torniloak eta piezak egiten direla imajinatzen dut, makinaria landu...



**FDIMP/a MORALES**  
39 urte, kaldereroa

Bai, makina erremintak denoi ematen digu jaten Euskal Herrian. Tornoak, fresadorak... egiten dira. Kaldereroa naiz, eta guk ere erreminta makinarako lanak egiten ditugu.

**KinSHIFLP ITIETI!**  
70 urte, etxeoandrea

Bai, senarra ere urte morduan Danobaten ibili da lanian, eta zer dan badakit, baina esplikatzia ez da erreza. Tailer txiki mordua dao hemen, eta bakoitzak pieza klase bat eitzen dau, kotxientzat edo beste edozerentzat.



**Anchústegui**



**ESPOSIZIOA  
ALMAZENA  
BULEGOA**

Olaso industrialdea  
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR  
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71  
Faxa: 943 74 37 11


**Sanyfer**



**lebot 40t 1114<sup>01</sup> ct. Coop.**

Olaso industriaidea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**



Euskaldunagoa?  
Oso zaila dago.

Independenteagoa?  
Ez da erraza.

Pluralagoa?  
Zein bezain plurala?

Hobea?  
Hoberena zen.

baina  
**obetuko  
dugu**  
zure laguntzare in

**berria berri**

Akzioei buruzko informazioa:

[www.eldsa.net](http://www.eldsa.net)

Tf: 635 733 385 - 635 733 386

## IMHko Ingeniaritzako lehenengo mailako ikasleak astebete nasatu dute Pirinioetan

Ingeniaritzako zazpigarren promozioiko ikasleek elkarbitzen ikasteko mintegi batean hartu dute parte. Astebete pasatu dute Jakan, eta jarduera desberdin ugari burutu dituzte. Hauen artean aipagarriak dira, esate baterako, Nafarroako hainbat enpresetara egindako bisitak. Enpresa hauen funtzionamendua eta beraien produkzio sistema ezagutzeko aukera izan dute. Bestalde, eskolako beste jarduera batzuekin batera, aisialdiko ekintza ugari egin dituzte: rafting, kanoi jaitsiera...

Mintegi honen helburua, alde batetik, bere prestakuntzari buruzko balantzea egin eta hobekuntza ekintzak proposatzea izan da, eta bestalde, proiektu bat gestionatuz,



taldeko elkarren harremanetako dinamika indartzea. Proiektuaren oinarria mintegia egin ahal izateko beharrezkoak ziren

baliabide guztiak planifikatu eta gestionatzea zen, hau da, garraioa, ostatua eta finantziazioa, besteak beste.



## Herri Eskolako ikasleek "Kontsumo Tailerretan" hartu dute parte

Joan zen apirilaren 28, 29 eta 30ean Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek "Kontsumo Tailerretan" parte hartzeko aukera izan zuten. Publizitatea, lehengaiak, jantzien etiketak, eta ehunen analisiak izan dira tailerretan landutako gai batzuk. Esan digutenez, oso interesgarriak izan dira landutako gaiak, eta eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren hainbat kontzeptu bereganatu dituzte haurrek, modu praktikoa eta dibertigarria.

## Hasier Etxeberria idazle elgoibartarrak hitzaldia eskaini zuen Elgoibar Ikastolan

Hasier'Etxeberriak "Bost idazle" liburuari buruzko hitzaldia eskaini zuen joan zen apirilaren 30ean. Elgoibar Ikastolako Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek klasean landu dute liburu hau, eta Hasier Etxeberriak berari buruzko azalpenak eman zituen.

Ikastolako Euskara Mintegiak ikasturte hasieran, ikasleen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahian, Euskal Herriko Idazleen Elkartearen ekimen bat aprobetxatu eta idazle bat ikastetxera ekartzeko aukera izan zuen. Mintegiari Hasier Etxeberria idazlea ekartzea ideia ona iruditu zitzaion, elgoibartarra izateaz gain, ikasle ohia ere baita..



## Liverpooleko ikasleak Barrenen izan ziren

Joan zen maiatzaren 8an, ikasle ingelesen bisita izan genuen Barrenen. Urtero bezala, aurten ere Elgoibar Ikastolako ikasleekin elkartrukea egin dute, eta astebete inguru pasatu dute gure herrian. 14 eta 15 urte bitarteko neska mutil hauek, bertako hizkuntza, ohiturak eta kultura ezagutzeaz gain, gure herri aldizkariaren funtzionamendua ikasteko aukera ere izan zuten. Bi taldetan banatuta, gure zuzendariaren azalpenak entzun, eta beraien galderak erantzun genituen.

ASTEKARIA

# Elkarrizketa

G E H I G A R R I A - H I L E K O E L K A R R I Z K E T A



Jasone Osoro

JASONE OSORO ELGOIBARTARRA  
TXIKI-TXIKITATIK LILURATU IZAN  
DUTE LETREK ETA HORIEN  
ATZEAN EZKUTATZEN DEN  
GUZTIAK. BESTE LUMA  
BATZUETATIK SORTUTAKO  
PERTSONAIK EZAGUTU DITU,  
NIENDI EZEZAGUNETAKO  
HAIZEAREN USAINA NOLAKOA  
DEN IKASI DU, HERRIXKA  
GALDUETAKO KALE ESTUETAN  
PASEATU DU, BESTEREN ZERUAK  
BERE EGIN DITU, ETA  
IRRIBARREAK ETA MALKOAK  
KONPARTITU DITU INON EZ ETA  
LEKU GUZTIETAN  
EXISTITZEN DIREN GIZON-  
ENIAKUNIEEKIN. BAINA  
HAU GUZTIA ASKI EZ ETA,  
BEHIN IZAN GENUEN  
TENTAZIO HURA  
OROITARAZI DIGU BESTE  
GUZTIOI ERE, ETA  
KORAPILOZ KORAPILO  
ARTEZ BILUZTU GAITU,  
GU ERE NORBAIT  
IDAZTEN ARI DEN  
LIBURUA IZAN  
GAITEZKEELA  
SINESTARAZTERAINO.  
BERAK SORTUTAKO  
MUNDU TXIKIAK OSO-  
OSORIK OPARITU  
DIZKIGU ORDAINETAN  
EZER ESKATU GABE.  
EZ DA GUTXI!

“SLJERTIA LUKITZIA BEZAIN INPORTANTIA

DA APROBETXATZEN JAKITIA”

KAZETARI, IDAZLE, GIDOIGILE, KOMUNIKATZAILE, SORTZAILE...JASONERI BERARI ERE KOSTA EGITEN ZAIO BERE BURUA DEFINITZEN ASKOTAN DEFINIZIO GUZTIAK SOBERAN DAUDELAKO AGIAN, EDO BERE LANEAN ARTISTA HUTSA DELA ESATEA NAHIKOA DELAKO, BESTEIA. DENA DEIA, ARRAKASTAREN FORMULAREN BILA ETA, BIDE BATEZ TENTAZIO EZKUTUREN BAT KONFESA DIEZAGUN, ELGOIBARTAR GAZTE HONENGANA JO DUGU. EA ZER DUEN GURI AITORTZEKO...

## Jasone Osoro

# "Tentazio bat gaind

Gogoan al duzu noiz hasi zinen idazten?

Ez naiz oso kontziente noiz hasi nintzan. Gure etxian ama beti izan da oso liburuzalia eta gogoratzen naiz nola gauetan ipuinak kontatzen zizkigun, nola ipuinak eta liburuak erosten zizkigun...Ta irakurtzia hainbeste gustauta, ailegau zan momentu bat pentsau nuana "aber ni ere kapaza naizen nik nahi doten pertsonaiak nik nahi doten egoeretan jarriz zeoze sortzeko". Ta hola hasi nintzan zirriborro batzuk idazten...Baina era kontziente baten nik uste institutuan hasi nintzala zeoze idazten, Angel Ugarteburuk estilua nakala ta hori lantzeko esan zianian.

Zure bizitza ere letren ildotik bideratu zenuen.

Bai, kazetaritza ikasi nuan ta gero urte pila batian BARRENen eon nintzan lanian. Hori da betetzen nauena.

Nola eman zenuen BARRENeko kazetari izatetik liburu bat argitaratzerainoko pausoa?

Egixa esan, suerte haundixa euki naban. Garai hartan, Egunkarian igandero "KZ" izeneko gehigarri bat ateratzen zan, eta azkeneko orrixan beti ipuin bat juten zan, idazle

ezagunen baten ipuin bat. Kontua da Maite Rementeriak Egunkarian lanian zebilen Luis Fernandez ezagutzen zuala ta hari komentau zio-la idazten zaban lagun bat zakala. Ta hola, nere ipuin bat argitaratu

zuten igande baten.

Hurrengo egunian, astelehenian, Xabier Mendigurenek deitxu zian Elkar argitaletxetik, ipuina gustau zitzaiola ta nere lanak irakurri nahi zitxuala esanez. Xabierrek estilua nakala baina oindik gauza asko landu bihar nitxuala esan zian, baina nere lanak irakurtzeko prest agertu zan, eta bi urte pasa zian Xabier ezagutu ta "Tentazioak" kalerau zan arte.

"Tentazioak"ek oso harrera ona izan zuen eta ezagun egin zinen. Zure bizitzan, aldaketa sumatuko zenuen.

Egixa esan, bai. Garai hartan enaxian zer zian liburu-  
ruen edizivak, aurkezpenak, elkarrizketatua izatia...kontrolatzen ez nuan fenomeno bat zan. Egunkarixetan eta irratixetan azaltzen nintzan...ta nahi gabe zirkuitu baten sartzen zera ta etiketau itxen zaitxuzte; nere ka-



"INOIZ EZ DEI  
BETI PERTSOI  
ETA SE

# r eko modu bakarra bertan erortzia da'



## INTEAU LITERATURA EROTIKUA IDAZTIA. ARTEKO HARREMANEI BURUZ IDATZI DET HARREMANETAN PRESENTE DAO"

suan "Jasone Osoro: idazle gaztea eta emakumea" nintzan, eta gainera, "sexuari buruz" idazten duana. Konturatu gabe eramaten zaitxuan makinaria baten sartzen zera.

**1 Orduan, lagundu egin zizun emakume izateak?**

Onartzen dot baietz. Garai hartan ernakumezko euskal idazle oso gutxi zeuden, karentzia bat zauan ta horrek lagundu in zian. Ze, mahainguru bat in bihar zala, egunkari baten zutabegiliak bihar ziala, literatura eta erotismuari buruzko hitzaldi bat zauala... beti komeni zan emakume bat ere egotia, eta orduan automatikoki nere izena etortzen zitzairen. Gero, noski, zure lanakin defenditxu bihar dozu emakumia eta gaztia izatia ez diala zure bertute bakarrak.

**Eta nola egin zenuen telebistarako jauzia?**

Barrenen urte asko neramatzan ta aldatzeko gogua nakan. Egixa esan, telebista enuan inundik inora planteatzen, enakan batere esperientziarik,

nere burua prentsan ikusten naban. Egun baten, Kike Amunarrizek deitxu eta "Bai zera" saivan gidoigile lana eskaini zian. Neri beldur pixkat ematen zian, baina aurrera itxia erabaki naban. Hasieran redaktore bezela bakarrik sartu nintzan, baina konturatu zian aurkezle bakarrakin mugatuta geratzen zala, eta ia kamara aurrian azaltzeko prest nauan galdetu ziaten. Eta hor ere aurrera. Hori izan zan nere lehenengo kontaktua telebistakin.

**"Sorginen Laratzen" ere ikusi zaitugu.**

Bai, "Bai zera" k 3 hilabete iraun zaban eta bukau zanian Itziar Azpeitiak deitxu zian "Sorginen Laratza" hasi bihar zala eta gidoilari baten biharra zakala esanez. "Sorginen Laratza" nere telebistako eskola izan da, danetik in dot: tertuliak, bideuak preparau, haiek editau, dokumentazio-lana, elkarrizketak, koordinazio-lana... Bitartian gainera "Hasiberriak" erako gidoiak itxen ere hasi nintzan. Praktikiakin ikasi dot telebistan.

**Beti aurrera egiten duzu. Ez zara erraz beldurtzekoa, ezta?**

Nik beti esan dot arrakastan formulak hiru ezaugarri dazkala: talentua edo bokaziva, lana eta, oso garrantzitsua dan beste faktore bat, suertia. Nik suerte haundixa eduki dot eta uste dot suertia eukitzia bezain inportantia dala suertia aprobeztatzen jakitia.

**"Tentazioak" ipuin solteak dira, "Korapiloak", berriz, elkarren artean korapilatutako istorioak. Zailagoa egin zitzaizun bigarren liburua idAztea?**

Bai, "Korapiloak" en istorioak, pertsonaiak beraien artian erlazonatuta daude eta, gainera, korapiloak askatzen jun ahala beste istorio bat azaleratzen da. Honek lan haundixaua es-



## "ARRAKASTA FORMULAK HIRU EZAUGARRI DAUZKA: TALENTUA EDO BOKAZIOA, LANA ETA FAKTORE OSO GARRANTZITSUA, SUERTIA"

katzen dau, kontraesanik ezin da egon...Gainera "Korapiloak" beka batekin idatzi naban, Igartza bekakin, eta epe baten barruan bukatu bihar naban eta horrek batzutan, ataskauta zaudenian eta, agobiau itxen du. Gehixo gozau naban "Tentazioak" idazten, baina oin atzera begirau ta konturatzen naiz "Korapiloak" ekin



E:kerretik lehenengoa (ht Jasone.

lan haundixaua in nabala. Gainera, Korapiloak liburuak Zilarrezko Euskadi sarixa irabazi zaban eta horri esker lortu naban Korapiloak gaztelara itzultzia. Desnudos izenakin atara zan iazko urrian Seix Barral argitaletxian eskutik.

"Jara" guztiz ezberdina da.

Bai, "Jara" enkargu bat izan zan eta neretzat erronka bat zan, ze enaxian 12-13 urteko neska-mutilengana hurbiltzia lortuko ote naban. Banaxian zeoze arina idatzi bihar nabala, elkarriketa askokua ta adin horretako kezak egoerak isladauko zitxuana.

Erotismoak leku handia du zure liburuetan. Horren bila joan zara edo hala atera egin zaizkizu?

Nik inoiz ez det planteau literatura erotikua idaztia. Nik beti pertsonen arteko harremani buruz idatzi det eta sexua harremanetan presente dauan zerbait da. Maitasunaz, gorroaz, biolentziaz, de-

sioaz eta abarrez hitz egiten badot ezin dot sexua baztertu. Gainera, oin-dik sexua ez dau normalizauta eta horrek halako morbo bat gehitzen dio, jendia erakartzen du.

I Zertan ari zara orain?

Foru Aldundiak literatur sorkuntzako beka bat eman zian eta eleberri bat idazten ari naiz. Lehenengo eleberrixa helduentzat, erronka berri bat. Eta, bestetik, Ainhoa Lodosok eta bixok komunikazio enpresa bat sortu dogu, BERBAK. Gure bezeruen irudixa zaintzeko barne eta kanpo komunikazioko planak eskaintzen ditzugu.

Eta bukatzeko, aholku eske gatoz. Zer egin behar da tentazioen aurrean?

Nere idazle kuttunenetariko batek, Oscar Wildek, esaten dau tentazivak bertan erortzeko diala, tentazio bat gaingitzeko modu bakarra bertan erortzia dala. Ta nik uste dot alde batetik arrazoia dakala, baina ondori-xueri ere begirau bihar jake, bakoi-tzak ikusi bihar dau ze irabazi eta ze galtzen daban tentazio baten erori ez-kero.

Irakurri duzun libururik onena?

Pila bat, baina azkenaldixan gehixen inpaktau nauana Saramagon "Ensayo sobre la ceguera"

Tentazio bat:

Taberna batzuetan kafiakin etaratzen daben txokolatinia.

Zerk sortzen dizu korapiloo tripan?

Euskal Herrixan eta munduan orokorrian bizi dogun egoera •aldrebes eta zailak.

Desteen ahotan



Ainhoa Lodoso:

"Basamortuko hauts artean auto bat ziztu bizian doa. Gurpilek arrastoa uzten dute kilometroak egin ahala. 'Thelma & Louise' filmeko deskaportable zaharra da. Jasone doa gidariaren lekuan. Tinko eusten dio bolanteari. Zapi luze bat lepoan eta eguzkitako betaurrekoak ilean kateatuta. Maparik ez dauka, baina badaki nora doan. Bidea luzea da, baina gasolinarik ez zaio falta autoari. Ni ondoko jarlekuan nago, Jasonei begira. Bidaia ahaztezina izango da, ziur nago".





## J. OVIDIO CAMPELLO PSE-EEko zerrendaburua "Industrialdeak eta IMH erakutsiko nizkieke kanpotarrei"

**Adina:** 52 urte.

**Jaioterría:** Guitiriz (Lugo).

**Ikasketak:** Zuzenbidea (3. mailara arte)

**Lanbidea:** Gerentea.

**Egoera zibila:** Ezkondua.

**Zaletasun bat:** Mendingian ibiltzea.

**Liburu bat:** "El Lapiz del Carpintero".

**Kirol bat:** Futbola.

**Janari bat:** Bakailaoa.

### Elgoibarren zer dago faltan? Zer soberan?

Denentzako eskuragarriak diren etxebizitzak eta lanpostu gehiago falta dira. Soberan, berriz, langabezia eta biolentzia daude.

### Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatuko?

Elgoibar makina erramintaren kapitala izanik, poligono industrialak, IMH eta Makinaren Erramintaren Museoa erakutsiko nizkieke herria piska bat promozionatzeko asmoarekin. Ezkutatu ez nioke ezer ere ezkutatuko, ez baitut ezkutatzeko ezer daukagunik uste, bai ordea hobetu daitezkeen gauza asko.

### Dermi ezazu zure burua bi hitzetan?

Pertsonen artean kontsentsua bilatzen saiatzen naiz eta elkarriketarako erraztasuna dut.

### Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena? Eta txarra?

Irakeko gerra amaitzea izan da berririk onena, baina aldi berean Irakeko gerraren hasiera izan zen berririk txarra eta baita Aznarren gobernua gerra honetan izan duen parte hartzea eta jarrera ere.

### Zein izan da zure bizitzako unerik onena?

Nire bi semeen jaiotza.

### Zein egunkari irakurtzen duzu?

Diario Vasco, El Correo, El País eta El Mundo egunkariak.

### Zein miresten duzu?

Juan Mari Bandres.

## "Alor guztietako jendearekin bildu eta terrorismoaren biktima izan diren elgoibartarrei omenaldia gingo nieke"

### Praktikatzen al duzu kirolrik? Zein?

Bai, palan jokatzeko dut eta mendian ibiltzen naiz.

### Etxeko lanik egiten al duzu? Zein?

Bai, sukaldean aritzen naiz.

### Emaiguzu arrazoi bat maiatzaren 25ean zuri botoa emateko.

Gure programa da arrazoi bat. Bestalde, arazoren bat aurkezten didan edonor entzuteko prest egongo naiz eta konpontzeko ahaleginak egingo ditudan ziurtasuna eskaintzen dut.

### Elgoibarko Alkate aukeratzen bazaituzte, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Pare bat gauza. Lehenik alor guztietako

jendearekin bilduko nintzateke eta guztiei esateko dutena entzun. Bestalde, terrorismoaren biktima izan diren elgoibartarrei omenaldia egingo nieke, ahaztuta baitaude. Jaime Arreserengandik hasi, Patxi Zabaleta...

### PROGRAMAREN 5 PUNTU GARRANTZITSUENAK

- **Babes ofizialeko etxebizitza gehiago** egiteko esfortzua egin nahi dugu, erosteko zein alokatzeko.
- **Albitxurin geratu gabe industrial gunetarako lurra** bilatzen jarraitu, enpresa elgoibartarrek herritik joan beharrik izan ez dezaten. Honi lotuta, Elgoibarko biztanle kopuruak behera egin ez dezan saiatu behar dugu.
- **Lurrazpiko aparkalekuak egin.** Plaza Txiki inguruan eta Sigman aurreikusitako ditugu.
- **Elgoibarbus** delakoa martxan jarri trafikoa arazoa konpontzeko modu bat gehiago izateko helburuarekin. Elgoibar inguruan bi autobus etengabe biraka ibiliko lirateke. Auzoetako jendearentzat eta lantokiara joan behar duten langi l eentzat abantaila handia l izateke.
- **Kultur gune bat sortu** Plaza Txikia, Musikaeskola eta Kultur Etxearen bueltan. Herrian dauden hainbat kultur adierazpenei irteera emateko. Aita Agirre ikastetxe zaharra berritzea eta egokitzea ezinbestekoa izanik.



# OZTOPO GUZTIEN GAINETIK EUSKAL HERRIA aurrera!



esan bai AUTODETERMINAZIOARI

esan bai GURE HERRIAREN DUINTASUNARI

**aurrera einbiou!**

**IÑAKI ODRIOZOLA**

Einbiou Herri Plataformako zerrendaburua

**"Einbiou da boto util bakarra"****Adina:** 42 urte.**Jaioterra:** Elgotar.**Ikasketak:** Filosofian Lizentziatua**Lanbidea:** Irakaslea.**Egoera zibila:** Ezkongabea.**Zaletasun bat:** Gitarra lotzea, antzerkia egitea.**Liburu bat:** El nombre de la rosa**Kirol bat:** Mendira joatea.**Janari bat:** Txipiroiak tinta beltzean**Zein da Einbiouren egoera?**

Momentuz ez gaude ilegalizatuta, baina maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetan parte hartzea debekatu digute. Agian egun batzuk barru Einbiou Plataforma ilegala dela esango digute, ez dakigu.

**Zein dira galerazpenaren arrazoiak?**

Ez dakigu. 250 plataformetatik 16 bakarrik onartu dituzte, eta nik dakidenez, plataforma horiek gure modukoak dira. Uste dugunez, ez dago plataforma hauek ilegalizatze arrazoirik, ezta Udal Hauteskundeetan parte ez hartzeko ere. Epailak ez digu arrazoi zehatzik eman. Norbaitek eskubideak murriztuta baditu, arrazoi batzuk egon behar dira, eta sententzia bat gutxienez. Gu hiritarrak gera, eta eskubide batzuk ditugu, edo hori uste genuen behintzat. Hemen bi motatako hiritarrak daude, eskubide guztiak dituztenak, eta eskubideak ez ditugunak.

**Zein asmo duzue maiatzaren 25eko Udal Hauteskunderi begira?**

Aurkeztu egingo gara. Estatu Espainiarraren jokua Hauteskundeak manipulatu eta irabaztea da. Lege bat ateratu du, Herri Plataforma guztiak ilegalizatuz; eta garaipena lortzeko aukera gehiago dituztela uste dute. Ez gaude kanpoan geratzeko prest, eta aurkeztu egingo gara.

**Zein modutan egingo duzue?**

Boto sekretua denez, gure papeletak bertan egongo dira. Espainiatik boto nuloak direla

esango dute. EAJk lege horren aurka dagoela adierazi du, baina gero ez dakigu nola jokatu duen. Gure ustez baliozko botoa da, eta gainontzeko alderdiei horrela kontsideratzea eskatuko diegu.

**Einbiouk 650 sinadura jaso zituen. Zer daukazu herritar hauei esateko?**

Eskerrak eman, eta maiatzaren 25ean botoa emateko eskatuko nieke. Asko poztu ginen herritarren erantzunarekin. Bageneukan beldur piskat, jendea izena ematerakoan beldurtu egiten baita. Gainera ez zen ezker abertzaleko jendea bakarrik izan, beste alderdi batzuetako jendeak ere eman zuen izena.

**"Egoera honetan beste alderdiei botatzeko egoera antidemokratikoa onartzea litzateke"****Zer gertatuko da Einbiouk jasoko dituen botoekin?**

Ez dakigu. Saiatuko gara botoek beraien ordezkaritza izan dezaten, eta uzten ez badigute ere, beti esango dugu herritarrek nahi dutelako hor egon behar garela. Udaletxe barruan egoten ez badigute lagatzen, kanpotik saiatuko gara gure programa aurrera eramaten.

**Legez kanpoko botoa emateak ba al dauka zentzurik?**

Bai, dudarik gabe. Demokraziarik eza eta

eskubideen murrizketa aldarrikatzeko; botatzeko orduan ere jendeak bere eskubideak eduki ahal izateko eta aldaketa bat behar dela adierazteko. Egoera honetan beste edozein alderdiri botatzea egoera antidemokratikoa onartu eta Iegitimatzeko izango litzateke. Agian datorren urtean hauteskunde legalagoak egin beharko dira.

**Ezker abertzalearen botoak beste alderdietara joan al daitezke?**

Espero dot ezetz, alderantziz izatea espero dot, hau da, abertzaleek Einbiou Plataformari botatzea. Zenbat eta gehiagok botatu, egoera demokratiko batera iristeko presio handiagoa egingo dugu.

**Zer iruditu zaizu gainontzeko alderdien jarrera?**

Asmo onak daudela ikusi dugu, baina asmoekin bakarrik ezin gara inora joan. Adibidez, kartel elektoralak ipintzeko panelak jarri dituztenean, Einbiouri ez diote lekuri utzi. EAJ-EA koalizioak beraien erdia utziko digutela esan du. Intentzio ona erakutsi dute, baina guk gure leku propioa nahi dugu, ez beraien limosnatxoak.


**Emaiguzu arrazoi bat maiatzaren 25ean zuri (Einbiouri) botoa emateko?**

Kandidatura oso zabala daukagu, hiru oinarri nagusitan banatuta: Eraikuntza Nazionala, Ezkerreko Ikuspegia eta Oinarrizko Eskubideak. Momentu honetan Einbiou da boto util bakarra.

## Ainara Garciak Artista Hasiberrien Lehiaketa irabazi du

Koldo Mitxelenako erakusketa gelan egongo dira ikusgai lanak

**A**inara Garcia artista eta disenatzaile elgoibartarrak XL. Artista Hasiberrien Lehiaketa irabazi du. Javier San Martin, Ismael Manterola, Chus Martínez eta Ricardo Ugartek osatutako epaimahaiak 21 sortzaile gazteren 27 lan aukeratu zituen eta hauetatik Ainara Garcia elgoibartarrak eta Ifialci Gracenearen lanak saritu zituzten. 7.000 euroko dirusaria eskuratu du bakoitzak. Ainarak aurkeztu eta saritua izan den lana, "Gender project", duela hiru urte sortutako lana da.



Bi urtean behin antolatzen dute lehiaketa hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak elkarlanean. 20 eta 32 urte bitarteko gazte gipuzkoarren arte sorkuntza errekonozitu eta bultzatzea da lehiaketa honen helburua eta aldi berean beraien lana jendaurrean erakusteko bitarteko eta laguntza guztiak ematea. Lehiaketan parte hartu duten lan guztiak, 27 guztira, Donostiako Koldo Mitxelenako erakusgelan izango dira ikusgai ekainaren 21era bitartean.

## Gasteizko Kanta Kantari Abesbatzak kontzertua eskainiko du maiatzaren 23an

Silvia Hernandez elgoibartarra da zuzendaria



**G**asteizko Kanta-Kantari Gazteen Abesbatzak kontzertua eskainiko du maiatzaren 23an, barixakuan, I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan 19:30ean. 2.000. urtean sortu zen Kanta Kantari Gazteen Abesbatza Gasteizko Vedruna Musika Eskolan. Gaur egun 11 eta 16 urte bitarteko 31 abeslarik osatzen dute taldea. Guztiak Musika Eskolako ikasleak dira. Bertan, musika hizkuntza, instrumentua, instrumentu taldeak, etab. abesbatzarekin batera lantzen dituzte. Silvia Hernandez elgoibartarra da abesbatzako zuzendaria eta baita Musika Hizkuntza, pianoa eta koral taldeetako irakaslea ere Vedruna Musika Eskolan. Honez gain Soraluzeko abesbatzaren zuzendaria ere bada. Kanta Kantari "Arabatxo" Arabako Haur Abesbatzen Elkartearen barruan dago iaztik, eta bertan egiten diren ekintza guztietan parte hartzen du.

## "Tres tristes stripteases" dantza ikuskizuna eskainiko du Damian Muñoz Danza konpainiak maiatzaren 23an

"Tres tristes stripteases" dantza ikuskizuna bi dantzari handiren lankidetzaren fruitua da. Batetik Jordi Cortes, Espainiako dantza garaikideko ordezkari aipagarrienetakoa (Dantzari eta koreografo gisa ibilbide luzea du eta DV8 ingelez konpainiarekin 8 urtez izan ditu hartu emanak). Beste dantzari handia konpainiari izena ematen dion Damian Muñoz da. Bien talentuak batzetik sortu zen datorren barixakuan, maiatzaren 23an, Herriko Antzokian eskainiko duten "Tres tristes stripteases". Begietatik indarrez sartzen den koreografia hunkigarria dauka dantza ikuskizunak. Virginia Garcia, Jorge Jauregi eta Damian Muñoz dantzariak interpretatzen dituzten pertsonaien barne bizipenek erraz egingo dute bat ikusleekin koreografia zintzo eta energiaz beteri esker. Dantzarietako batek, Virginia Garcia dantzari eta koreografoak, hain zuzen ere, Madrid eta Maspalomaseko Dantza Lehiaketetan lehen sariak eskuratu ditu.



## C.D. Elgoibar jubenil mailako taldeak Ohorezko mailara matematikoki igotzea lortu du

**X**abi Alonsok entrenatzen duen jubenil mailako C.D. Elgoibar futbol taldeak liga bukatzeko 3 partiduren faltan lortu du datorren denboraldian Ohorezko mailan aritzea. Zestoa taldeari 7 eta 0 irabazi ostean matematikoki lortu zuten mailaz igotzeko behar zituzten 42 puntuak. Sailkapeneko bigarren postuan Zumaiako taldea dago, elgoibartarrek baino 8 puntu gutxiagorekin. Partidu amaieran iritsi ziren ospakizunak, aldageletan lehenik eta zuzendaritzak antolatutako afarian ondoren. Denboraldi ezin hobea egin dute aurten jubenilek eta merezitako fruitua jaso dute. Hasiera kaxkar samarra izan zuten, baina 14 partidu jarraian irabaztea lortu ostean, ez dute



arazorik izan lehen postuari eusteko. Iñigo (19 gol) eta Iban Murua (18 gol) izan dira goleatzailerik onenak. Taldearen gaztetasuna ere aipatzekoa da, datorren urtean ia denek, 3 jokalarik izan ezik, jarraituko baitute jubenil mailan. Ohorezko mailan denboraldi ona egiteko moduan izango dira beraz.

## Elgoibarko Itzulia domeka honetan, hilaren 18an, izango da

Morkaiko Mendizale Elkarteak urtero antolatzen duen Elgoibarko Mendi Itzulia domeka honetan, maiatzaren 18an, izango da. Iaz partaidetza errekorra hautsi zuen probak, 136 lagunek! eman baitzuten izena. Morkaikok Errosario kalean duen egoitzatik aterako dira mendizaleak goizeko 6:00ean. Parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman dezakete izena. 9 euro ordaindu behar dira (5 euro bazkideek). Aurten ere bi ibilbide izango dira: bata luzea, 46 km. Eta motza, bestea, 38 km.koa. Ia 7 ordu behar izan zituzten iaz aurrenekoek eta ia 5 ordu gehiago azkenengoek. Bidean bi tokitan antolakuntzako talde bat egongo da jana eta



edana eskainiz. Bestalde, Finalista Egunerako (ekainak 8) mendien zerrenda edo kartulinak entregatzeko azken eguna maiatzaren 19a, astelehena, izango da.

## Euskadiko Eskolarteko Jokoetako finalak asteburu honetan izango dira Elgoibarren

Asteburu honetan infantil mailako Euskadiko XXII. Eskolarteko Jokoen finalak izango dira Elgoibarren. Areto Futboleko, karateko eta txirrindularitzako finalak jokatuko dira gure herrian. Zapatuan, hilaren 17an, areto futboleko 6 partidu jokatuko dira Olaizaga Kiroldegian goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:30etara bitartean. Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako ordezkariak

lehiatuko dira elkarren aurka. Karate Txapelketa ere Kiroldegian jokatuko da igandean, hilaren 18an. 10:00etan hasiko da konpetizioa eta 13:30etatik 14:00etara bitartean izango da sari banaketa. Azkenik Txirrindularitza proba ere domekan jokatuko da Sigmako poligonoan. Goizeko 10:00etan hasiko dira lasterketak eta 14:00etan izango da sari banaketa ekitaldia

## EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 2**- Amaiak Bat 1 (Pref.)  
Elgoibar 4 - Orioko 1 (Kad.)  
Elgoibar 2- Intxurre 0 (1. erreg.)  
Elgoibar 4 - Urola 0 (Neskak)  
Pasajes 3 - Elgoibar 4 (Jub.)  
Eibar 2- Elgoibar 0 (Inf.)

### Areto Futbola

Lanbroa 1- Allerru 2 (1. maila)  
Lojantzi 4 - Gailurrerantz 1 (Jub.)  
Kenci Elg. 12 - Virgen De Vico 7 (Nazional B)

### Esku pilota

#### Lagunak Txapelketa

A. Gurrutxaga 18 -J. Ibarluzea 4 (Benj.)  
I. Txurruka 18 - A. Gabilondo 16 (Benj.)  
I. Arrieta 18 - H. Arribillaga 16 (Inf.)  
J. Agirrebeña 18 - A. Larrañaga 9 (Inf.)  
A. Lizarralde 18 - E. Salegi 6 (Inf.)

#### Debarroko Txapelketa

Atxotegui/Garate 3  
Portu/Txurruka 22 (Lagunak)  
Rodriguez/Txurruka 12  
Ulazia/Iriondo 22 (Lagunak)  
Ubera/Arrieta 22  
Altzibar/Loiola 5 (Lagunak)

### Idarraga kafeak 6. sari

**HAUNDIko jokalaririk erregularreli** 02/03  
**JOKALARIA** ..... **UNTUAK**

Elkoro .....	44-4-
2- I. Gurrutxaga .....	41
3- Gotzon .....	29 +1
4- Arenas .....	
5- Igartua .....	26-4-
6- Jakes .....	25
7- Bravo .....	20
8- Caro .....	19
9- Loren .....	17
10- Izagirre .....	1744
11- Iraitz Ugalde .....	14
12- Guinea .....	13
13- Gomez.....	12
14- Navarrete .....	11
15- Ibai Glez. ....	9
16- Tarragual .....	7
17- Duarte .....	6
18- Jon Ander .....	6
19- Kepa .....	6 4.
20- Leonardo.....	5
21- Elustondo .....	5

## AGENDA

### Futbola, Mintxeld

**17, zapatua**  
**16:30** Elgoibar - Zumaiako (Jub.)  
**18, domekia**  
**10:30** Elgoibar - Lengokoak (Aleb.)  
**12:00** Elgoibar - Lengokoak (Inf.)

# merkatu txikia

## Lana

### ESKAERA

Emakumea nagusiak, edo 10 urtera arteko haurrak zaintzeko prest. z- 943 74 30 03 (Elena Garcia)

Neska asteburuetan, jai egune-tan eta udan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. s. 943 12 73 07/630 52 85 19

Emakumea edozein lan egiteko prest. a 660 69 53 03 (Marta)

Mutila buzoneo lanak egin edo kartelak pegatzeko prest. ze 943 74 44 63

\*Mutila garbiketa lanak egiteko prest. tr 943 74 44 63

Emakumea lanerako prest. Tabernan, jatetxean, nagusiak eta haurrak zaintzen esperientzia daukat. a 630 725 244

+ Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. zr 943 74 22 01 (Araceli)

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. z. 626 91 49 04 (Rosa)

Emakumea gaixoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. tr 943 03 03 21 (Mertxe)

\* Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. tr 943 74 35 05

(Justa)

### ESKAINTZA

• Esperientziadun kamareroa behar da asteburuetan jatetxean lan egiteko. u. 943 12 12 62

• Emakume gaztea edo adin er-tainekoa behar da, Mendaron goizeko 8:00etatik 14:00etara umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. fs 943 75 52 06 (goizez)

Astehenetik ostiralera etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Goizez, bi ordu egunero. st 676 50 52 27

• Kamareroa behar da. tr 943 74 42 65

• Asteburuetarako sukaldaria behar da. tr 943 74 42 65

\* Kamareroa behar da. 9 43 74 26 21

## Etxebizitzak

Logela alokatzen da. tr 943 74 18 81

+ Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Eraberritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. tr 661 42 60 77

\* Etxea salgai Pedro Muguruza kalean. Iggogailua, kalera begira. 943 74 35 35

\* Etxea salgai San Pedro kalean. 3 logela, egongela, sukaldaria eta komuna. Lora-tegi txikia. Eraberritzeko. tr 609 49 27 36 (Pedro) 670 44 26 70 (Jose Mari)

• Etxea hartuko nuke alokairuan. z. 943 03 03 21

\* Nafarroan, Lizarratik gertu dagoen landetxe batean logelak eskaintzen dira. tr 699 18 75 68

Etxea salgai Elgetan. Eraikuntza berria, 90m<sup>2</sup>. Sukaldaria, jantoki-saloia, 3 logela, 2 bainugela. Garajea eta trastero handia. Sukalde eta jantokitik balkoira irteera. Izugarriko bistak mendi aldera. 15. 94 658 34 72/615 74 50 72 (15:00etatik aurrera. Josune)

• Logela alokatzen da. tz 699 91 31 69

## Bestelakoak

• Maiatzaren 6an Festina markako edo-jua galdu nuen Kiroldegian. Saritu egingo da. 13' 943 74 20 31

• San Lorentzora bidean urre zuriko belarritakoa aurkitu dut. 15. 943 74 24 34

• Karakaten apirilaren 28an, arratsaldean, iturri inguruan erloju bat aurkitu nuen. Jabeak deitu dezala. te 943 74 16 64

• Txori bat topatu dut Ikastolarako bidean. tr 635 72 00 91

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Lokalak

• Txabola alokatzen da Urasandin, txakurrak gordetzeko oso egokia. Merkea. 71. 661 62 62 60

## Salertilketak

• Hyundai Sonata 2.0 salgai. Egoera onean. tr 653 72 59 47

• Traileko motorra salgai. Kawasaki KLE 500. Bi zilindro. Oso egoera onean. 22.000km. 2.400 euro. tr 943 76 64 01/605 71 24 73

Ezkongai soinekoa salgai. 300 euro. 17. 666 76 22 95

- Tabernarako barra salgai. 120 euro. 1:r 666 76 22 95

• Tubo eskapea salgai. Hyunday Coupe 2.0 (70 euro), kuprezko muelak (60 euro) aurrekoak eta atzekoak, 4 zm. jaisten dute. 17 666 76 22 95

• 2. eskuko pianoa erosiko nuke. Egoera onean. -a 943 74 05 37

• Opel Vectra autoa salgai. Egoera onean. s 616 16 77 60

• Senar-emazte logela salgai. Konpletua (ohea, armairua, mahaitxo...). Oso merke. zr 943 74 20 30 (Lucia)

• Opel Calibra 2.0 16v, 160 cv salgai. Full Equipe, 17" llantak, motor berria, 31.000 km. Oso egoera onean. 661 62 62 60

**Elgoibarko Izarrak eta Udalak** elkarlanean martxan jarri nahi duten proiektu berri baterako

## EUSKARA TEKNIKARIA BEHAR DA

### TEKNIKARIAREN ZEREGINAK:

Euskararen ezagutza eta erabilera informala indartzea 12 urtetik beherako neska-mutilen artean.  
— Familia bidezko euskararen transmisioari eragitea.

### ESKATZEN DA:

Euskara maila ona (ahoz eta idatziz)

Harremanetarako dohainak

Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna

### BALORATUKO DA:

Elgoibartarra izatea

Soziolinguistika ezaupideak

### ESKAINTZEN DA:

OrdiL1KO Idili KOFIIMIUD

Curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte, Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)

E-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Izena emateko azken eguna: malatzak 23

## Agurrak

◆ **Bihar zorte on! Purit eta Pototori.**



◆ Zorionak **Marilyn!** Elgoibarko neskarik politena zara. Koadrilakoen partez.



• Zorionak **Leire**, datorren astelehenean bi urte beteko dituzulako. Etxekoen partez.



\*Zorionak **Naia**, zure 2. urtebetetzean. Senideen eta bereziki, lonen partez.



• Zorionak **Iker**, bihar, hilak 17, zazpi urte beteko dituzulako. Muxu bat Oierren partez.



• Zorionak **Oier**, gaur, hilak 16, bi urte bete dituelako. Muxu bat etxeko guztien partez.

WIP\* Itit



• Zorionak **Osel**, gaur 16 urte bete dituzulako. Gurasoen partez.

◆ Zorionak **Angel**, gaur bi urte bete dituzulako. Gurasoen, eta bereziki lagunaren partez.

◆ Zorionak **Noemi**, bihar, maiatzak 17, bi urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak **Egoitz**, atzoko partez. Familiako guztien partez.



• Zorionak **Maria**, maiatzaren 20an 11 urte egingo dituzulako. Anaia Andoni eta familiako guztien partez.



• Zorionak **Marcos** zure 3. urtebetetzean. Anaia Asier, guraso, aiton-amona, osabazibea eta lehengusuen partez. Ondo pasa eguna!



◆ Zorionak **Unai**, astelehenean bost urte beteko dituzulako. Familiakoen, Irati, Mikel, Iñigo, Ion eta bereziki, bere anaiaren partez.



◆ Zorionak **Ainara**, maiatzak 15ean zure urtebetetze eguna delako. Muxu handi bat ama eta anaia Urkoren partez.



• Zorionak **Oihana** eta **Aitor**. Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Etxekoen eta koadrilakoen partez.



• Zorionak **Ainhua** eta **Karlotari** beren 8. eta 4. urtebetetzean. Gurasoen eta etxeko guztien partez.



• Bi muxu berezi-berezi 15 urte betetzen dituzten 'neska **tzikr** hauei.

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea  
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
TeL 943 741 461*

*Ordutegi berria  
Astelehena: 17:00-20:00  
Asteartea-ostirala: 16:00-20:00*

## IKASTAROK

### Soldatzailea

INEMek lanerako prestakuntza ikastaroa antolatuta du: Elektrodun arku elektriko bidezko soldatzaile ikastaroa. 380 ordu. Ekainaren 30etik azaroaren 2lerra bitartean. Epea: Plazak bete arte.

### Internet

Eusko Jaurlaritzak eta Egailanek Interneteri buruzko oinarriko ikastamen programaren aurkezpena egin dute. 2005. urtera arte iraungo duen programa honen helburua etorkizuneko erreminta hau hiritarrei eskaintzea da. 16 urtetik gorakoei zuzendutako programa da. Epea: abenduak 31.

### Diseinu grafikoa

Errenteriako Gazteen Informazio Bulegoak diseinu grafikoko "freehand" ikastaroa antolatuta du 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Ikastaroa 28 ordukoa izango da. Epea: plazak bete arte.

### Web

Gazteen Elkargintzarako Baliabide Zentroak Web orrien diseinu ikastaroa antolatuta du 14 eta 30 urte arteko gazteentzat. Ikastaroa Donostian izango da, Gazteguneko lokalean, Anoetan. Epea: Plazak bete arte.

## IBIAKETIK

### Zinebidok

Bilboko Udala eta Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko Zinemaldiak antolatutako dokumental luzeen Zinebidok lehiaketa. Lehiaketarako filmek 60 minutuko iraupena izango dute. Saria: 6.000 euro. Epea: irailak 15.

## LANA

### Udaltzainak

Tolosako Udalak oinarriko udaltzain-eskalan 3 lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa antolatuta du. 18 eta 32 urte bitartean izatea, eskola graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna. Epea: maiatzak 19.

### Arkitekto Tekniko

Aretxabaletako Udalak Hirigintzako Erdi-mailako Teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatuta du. Arkitekto teknikoaren titulua eta euskarako 3. Hizkuntza eskakizuna eskatzen dute. Epea: maiatzak 19.

## Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
16 Bidasolo	Bidasolo	<b>ESCALA</b> , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
17 Bidasolo	Bidasolo	<b>FERNANDEZ</b> , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
18 Bidasolo	Bidasolo	<b>ZABALETA</b> , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
19 Fernandez	Fernandez	
20 Yudego	Yudego	
21 Zabaleta	Zabaleta	
22 Etxeberria	Etxeberria	
(Errosario kalean)		
23 Ibañez	Ibañez	

**OKINDEGIA**  
18 igandea Idarraga

## 16 BARIXAKUA

22:00 ZINE FORUM-A

"Cena entre amigos"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 18 DOMEKIA

(v00) ELGOIBARKO MENDI

ITZULIAREN IRTEERA

Irteera: Errosario kaletik

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

## 19 ASTELEHENA

17:00 PEIO AÑORGA IPUIN

KONTALARIAREN EMANKIZUNA

Udal Liburutegian

## 22 EGUENA

21:30 TRINITATETAKO  
NAGUSIEN DANBORRADARAKO  
ENTSAIOA

Merkatu Plazako azken solairuan

## 23 BARIXAKUA

15:00 I. IRRATSAIO LEHIAKETA

Elgoibar Ikastolan

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola, Radio

Eibar Cadena Ser eta Danobat

19:30 KONTZERTUA

Gasteizko Kanta Kantari Gazteen

Abesbatza

1. Bereziartua Musika Eskolako

Auditorioan

DANTZA IKUSKIZUNA

"Tres Tristes Stripteases"

Taldea: Damian Muñoz Danza

Herriko Antzokian

## DEIALDIAK

Trinitate jaietako nagusien danborrada

Maiatzaren 22an, ostegunean, Trinitate jaietako nagusien danborradako entsaioak hasiko dira Merkatu Plazako azken solairuan, iluntzeke 20:30ean. Hurrengo entsaioa, zapatuan, hilaren 24an izango da eguerdiko 12:00etan. Danborradan parte hartu nahi duen orori bietako batera joateko eskakizuna egiten zaio. Izenik eman ez duen jendea garaiz dabil parte hartu nahi badu, entsaioetara agertzea besterik ez baitu egin behar, arduradunek adierazi digutenez.

Musika Eskolako bilera

Musika Eskolan ematen diren ikasketen gaineko bilera antolatuta du Inazio Bereziartua Musika Eskolak maiatzaren 19an, astelehenean. Arratsaldeko 19:15ean hasiko da bilera eta Musika Eskolako auditorioan izango da. Gaur egun eskaintzen diren ikasketen organigramaz gain, 3. mailako ikasgai berrien aurkezpena egingo da: "Musika Maestro", informatika musikala eta armonia modernoa. Bostgarren kurtsoko bigarren eta hirugarren mailako ikasle eta gurasoei zuzendutako bilera da.

ZINE  
kluba



## "Spider"

Zuzendaria: David Cronenberg.

Antzezleak: Ralph Fiennes, Miranda Richardson, Gabriel Byrne. Zinegintza zabala bezain sakonaren jabe den kanadiarra; "La mosca", "existenz", "M.Butterfly", "Inseparables", "Cromosoma 3"... bezelako izenburu arrakastatsuen zuzendari trebea dugu. Oraingoan zortasunaren mugak, oroimena eta identitatea uztartzen dituen biziraupenezko gatazkari buruzko tesia planteatzen digu. Adituek, errealitatea benetan ezagutzeko dugun arazoari buruzko zuzendariaren gogoeta prozesuaren burutzapena bezala hartzen dute hautemate prozesu konplexuei buruzko filme borobil hau.



## LEHIAKETAK

### I. Irratsaio Lehiaketa

Elgoibar Ikastolak apirilaren 26an egin behar zuen I. Irratsaio Lehiaketa maiatzaren 23an, arratsaldeko 15:00etan izango da. Parte hartzea nahi duenak elgoibar@ikastola.net helbidera mezua bidali eta izena emateko aukera izango du maiatzaren 20ra arte. Elgoibar Ikastolarekin batera, Danobat eta Radio Eibar Cadena Ser aritu dira antolakuntza lanetan. Lehiaketa 12 eta 16 urte bitarteko Debabarrenako gaztetxoei zuzenduta dago. Talde bakoitzak bi kide izan beharko ditu eta saioaren iraupena 15 minutukoa izango da.

## LAGUNTASUNA

### Kuestazioa

Kantzerraren Aurkako Elkartek kuestazioa egingo du zapatu honetan, hilaren 17an, Elgoibarren. Kuestazio honen helburua Elkartek martxan dituen hainbat programa eta proiektu bere horretan mantentzeko dirulaguntzak lortzea da. Elkartek elgoibartarrei luzatu nahi die laguntasun deia, kantzerra duten gaixoen eta hauen familien bizi baldintzak hobetzeko beharrezkoa baitute.

## ERAKUSKETAK

Eskuz Elkartek zaharberitutako altzarien erakusketa antolatu du. 2002-2003. ikasturtean ikasleek zaharberitutako altzariekin osatu duten erakusketa maiatzaren 23tik ekainaren 1era izango da ikusgai Kultur Etxean, 19:00etatik 21:00etara,

## BERTSOAK

### Plazatik Gaztetxera

Maitzaren 23an, barixakuan, Elgoibarren jokatu da Plazatik Gaztetxera txapelketako azkenengo kanporaketa. Txapelketaren aurretik afaria egongo da Gaztetxean. Tikitak Txuri Beltz eta Iratxo tabernetan egongo dira salgai. Langileentzat 12 euro eta langabetu eta ikasleentzat 9 eurokoa izango da prezioa. Afariaren ordua gaueko 21:00ak izango da eta Bertso txapelketa 22:00etan hasiko da. Saio honetan Ion Garate elgoibartarrak parte hartuko du.

## IKASTAROAK

### Sukaldaritza ikastaroa

Haizea Emakume Taldeak sukaldaritza ikastaroa antolatu du. Mediterraneoko sukaldaritza eta sukaldaritza begetarianoa izango dira ikastaroko ardatzak. Maiatzaren 26tik 30era bitartean izango da 17:00etatik 19:00etara. Plaza mugatuak direnez lehenbailehen izena ematea komeni da. Inskripzioak 30 euro balio ditu eta Pitxintxu dendan egin daiteke. Klaseak Pedro Muguruza ikastetxean izango dira.

## IKUSKIZUNAK

### Ipuin kontalaria

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, maiatzaren 19an, astelehenean, Peio Añorga ipuin kontalariak Udal Liburutegiko "Txikiteka"-n parte hartuko du. Bi saio eskainiko ditu: Lehenengoa 4 eta 5 urteko haurrentzat arratsaldeko 17:00etan eta 1. eta 2. mailako haurrentzat bigarrena, arratsaldeko 17:45ean.

# zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Chicago"

16, barixakua: 22:15

17, zapatua: 19:30-22:15

18, domekia: 19:30-22:15

19, astelehena: 22:15

"Los Thornberrys"

18, domekia: 16:30

"Spider" (Z.K.)

22, eguena: 22:15

EIBAR

Unzaga

"El cazador de suerios"

16, barixakua: 19:30-22:15

17, zapatua: 17:00-19:30-22:30

18, domekia: 17:00-19:30-22:30

19, astelehena: 19:30-22:15

20, martitzena: 19:30-22:15

21, eguaztena: 19:30-22:15

"Pacto de brujas"

16, barixakua: 19:30-22:15

17, zapatua: 17:00-19:30-22:15

18, domekia: 17:00-19:30-22:15

19, astelehena: 19:30-22:15

20, martitzena: 19:30

21, eguaztena: 19:30

13ARRENEk ez du gerta litezkeen emanaldien



## "Chicago"

Zuzendaria: Rob Marshall.

Antzezleak: Richard Gere, Renee Zellweger, Catherine Zeta-Jones.

Guztiek maite dituzte legendak Chicagon, baina bakarrarentzat dago lekua. Velma Kelley da gau klubak hankaz gora jartzen dituen izar bakarra. Senarra tirokatzen duenean Chicagoko hiltzailerik ospetsuenen zerrendan sartuko da. Velmaren abokatu argiak hiriko krimenik ezagun eta mediatikoena bihurtuko du eta Velmaren ospeak aparra moduan egingo du gora. Presondegian dagoen bitartean Roxie Hart ezagutuko du. Honek ere bere amorantea tirokatu eta hil egin du. Roxik koru batean abesten du, baina profesionalki aurrera egiteko gogo bizia dauka.

# N



# A

ste honetako erretratu zaharra argazkian agertzen direnen senide batek laga digu. Maiatza Jaunartzeak egiten diren garaia denez, aspaldi batean Jaunartzeak nola egiten ziren gogoratuko dugu argazki hauekin. Erretratuan ageri direnak anai-arrebak dira, **Nicolas** eta **Bibiana San Martin Arrizabalaga** elgoibartarrak. San Bartolome Parrokian egindakoak dira Jaunartze hauek, Nicolasek 1916an eta Bibianak 1918. urtean. Urte ugari pasatu diren arren, begira garai hartan ere zelako dotore egiten ziren Jaunartzeak!

# Maribi Agirregomezkortarekin

## Elgoibar beti aurrera.



**Mr650 Etxe berrien sorrera**

**IrMusika Eskola berria**

**1Yr Mintxetako igerilekuen irekiera**

**N(Limousin ganaduaren txapelketa**

**Gaztedi zinegotziaren eraketa**

111 **Herriko apainduaren hobekuntza: lorategi, zubi, kultur ondarea...**

111 **Buruko gaitza duten gaixoentzat eguneko zentrua**

**Hurtzaindegiaren zabalpena eta berregokitzapena**



Bozkatu eraginkor.



# DAMIAN MU

# ANIM

"Tres tristes stripteases"



Maiatzak, 23 ostirala  
22:15etan  
Herriko Antzokian

## MUZZIKIREN BIDAIA HARRIGARRIA

*LitusiLel,*

Maiatzak, 25 igundea  
16:30ean  
Herriko Antzokian

3-12 urteko haurrentzat

## ANTZERKIA



KULTURA SAILA HARITZ DANTZA TALDEA



FORU ALDUNDIA



SAREA